

BIME PROren 8. EDIZIOA BEC! BILBAO ARETOAN IZANGO DA, URRIAREN 28an, 29an eta 30ean, ETA SARRERAK GAUR JARRIKO DIRA SALGAI

- *BIME PROren zortzigarren edizioa urriaren 28an, 29an eta 30ean izango da BEC! Bilbao aretoan, eta sarrerak gaurtik aurrera eros daitezke, www.bime.net webgunean.*
- *Gaur iragarriko dugu lehenengo hizlariak zein izango diren, eta BIME PRO CAMPUS+ eta BIME PRO START UP COMPETITION deialdiak ere gaur ireki dira*
- *BIME PRO jaialdiaren barruan izango dira, alde batetik, AMCS – Atlantic Music Conferences Symposium feria iberoamerikarren topaketaren eta, bestetik, ekitaldien sektoreko enpresa eta profesionalak biltzen dituen BIME TECH feriaren 2. edizioak.*
- *#inoizbainogertuago lelopean, antolatzaileek inoiz baino gehiago agertu dute beren konpromisoa, Europako eta Latinoamerikako musika-industriaren protagonistak biltzen dituen urteroko hitzordu hau inoiz baino beharrezkoa den aldetik*

BIME PRO Estatuko musika-industriaren ekitaldi garrantzitsuen da, eta Europako eta Latinoamerikako sektoreko profesionalen agendan ezinbesteko hitzorduetako bat; aurtengo zortzigarren edizioa **2020ko urriaren 28an, 29an eta 30ean izango da**. Iazko kopuruak gainditzea espero dute aurten, Bilbao Exhibition Centre (BEC!) aretoan: 3.000 profesional baino gehiago, nazioko eta nazioarteko 320 jaialdi eta 30 herrialdetako 1.400 enpresa. Hiru egunetan **networking-a, sormena, eztabaida, prestakuntza eta zuzeneko musika** izango dira nagusi. BIME PRO ekitaldiaren antolatzaileek kontuan izan dituzte eta beti izango dituzte Gobernuaren erakundeetatik agintzen dituzten jarraibideak, eta ekitaldia izango den egun horietan indarrean dauden arauetara egokituko da.

Hainbat esparru profesionaletatik datozen hizlariak parte hartuko dute BIME PRO 2020 ekitaldian, programa fin eta askotarikoa eskaintzeko berriro ere. Oraingoz, baieztatuta dago honako hauek etorriko direla: **Mike Malak**, Billie Eilish bezalako nazioarteko artisten manager ospetsua; **Rafael Sardina** ekoizle ezaguna, artista handi ugariarekin lan egin duena, hala nola Michael Jackson, Stevie Wonder edo Lady Gaga; **Saul Cabrera**, nazioartekotze-estrategietan espezialista eta aholkularia, eta EmuBands-en merkatua garatzeko zuzendaria, gaur egun, LATAM eta Espainiarako; **Manuel Ángel López Pérez**, musika-zuzenbidean espezializatutako Sympathy for the Lawyer enpresaren zuzendaria; **Patricia Gabeiras**, Musika Jaialdien Elkartearen zuzendari nagusia; **Tomás Tello**, music supervisor ezagunenetariko bat eta, besteak beste, “La Casa de Papel” serie ospetsuko musika hautatzeko proiektuaren erantzulea; edo **Lorena Jiménez**, La Trinchera komunikazio-agentzia ezagunaren sortzailea. Azken honek bi saio eskainiko ditu BIME PRO Campus programaren barruan, besteak beste, talentu gazteen prestakuntza ardatz izanik.

BIME PRO azokan, aurtengoan ere, askotariko gaiak biltzen dituen programa izango da: **BIME PRO FESTS** topaketari esker, Bilbo jaialdien topagune izango da berriro, bere historiako unerik garrantzitsuenetako batean; izan ere, 2020ko denboraldia konplexua eta ezezaguna izaten ari baita. **BIME PRO CAMPUS+**, segidako laugarren urtez, etorkizunean musikaren industrian jardun nahi duten 32 ikaslez osatutako talde bati zuzendutako prestakuntza-programa aurreratuarekin dator berriro, eta antolatzaileek proposatutako erronka baten bitartez hautatuko dira ikasle horiek. Aurtengoan, musika-jaialdien berrikuntzarekin eta jasangarritasunarekin lotutako erronka izango da. Deialdia zabalik dago jada, www.bime.net webgunean. Berrikuntzarako eta ekintzaletzarako gunea izango da **BIME PRO**

START UP!; gaur bertan zabaldu da BIME PRO Startup Competition lehiaketaren deialdia. Lehiaketaren helburua musika-industriako proiektu berritzaileena saritzea da, eta hautatutako proiektuei ikusgaitasuna ematea Startup Village gunean, hau da, BIME PRO azokaren bihotzean bertan; gune horretan, haien zerbitzuak ezagutarazteko aukera izango dute, bertaratzen direnen, erakusketarien eta inbertitzaileen artean negozio-bide berriak sustatzeko asmoz.

Era berean, **AMCS – Atlantic Music Conferences Symposium** feria iberoamerikarren topaketaren 2. edizioaren egoitza izango da BIME PRO, Amerika eta Europa kontinenteen arteko konexioa areagotzeko eta sektore latinora hurbiltzeko asmoz; eta **BIME TECH** azokaren egoitza ere izango da. Azoka horretan, harreman komertzialak ahalbidetzen dira eta ekitaldietako profesional eta enpresen artean jakintza-transferentzia gertatzen da; iaz harrera oso ona izan zuen bai erakusketarien aldetik, bai bertaratutakoen aldetik, eta 2020. urtean esparruan lider diren 20 enpresa baino gehiago baieztatuta daude jada.

Aurtengo edizioa Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera antolatu da,

Aurtengo edizioa Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera antolatuko da, Bilbo eta lurralde historiko osoa musika industriaren hiriburu bilakatuz urriko azken astean. Musikarekin konprometitutako lurraldea, nazioarteko ikuspegia duena eta beti irekia euskal kultura-ehunean funtsezkoa eta ezinbestekoa den sektore baten garapen eta profesionalizazioa.

Gainera, honako hauen laguntza izango du: Bilboko Udala, Eusko Jaurlaritza, Spri, Kultura eta Kiroletako Ministerioa edo Acción Cultural Española erakundea, baita Europako hainbat herrialdetako 30 kultura-agentzia baino gehiago ere, hala nola AEDEM, ARTE, IMMF, MIM, PAM, PROMUSICAE, UFI, ACCES, AGEDI, APM, Musika Bulegoa, Kultura Live, LIVE DMA, Yourlope, APECAT, ARAGÓN EN VIVO, ARAGÓN MUSICAL, ARC, ASACC, CLUBTURA, CYLEV, FEAGC, LNEV, ARE, APGCNA eta Latinoamerikako 7 ordezkariak.

#INOIZBAINOGERTUAGO

Gaur egun, eta Covid-19ak eragin duen krisialdia dela-eta, sektorea egoera konplikatu bizitzen ari da eta, horregatik, aurtengo edizioak zentzu berezia hartu du. Musikaren industria beti izan da aldakorra, etengabeko garapenean, ereduaren krisialdiekin, erronka berriekin; hori dela-eta, dinamikoa, sortzailea eta berritzailea izan da eta, batik bat, pasioak mugiarazten duena. **“BIME PROn inoiz baino gertuago sentitu behar dugula uste dugu. Enpresa, profesional, ikasle, erakunde sektorial, marka... guztietatik gertuago, azken urteotan hitz egiteko, eztabaidatzeko, ikasteko eta berritzeko elkartzen garen profesionalen sare hau osatzen dugun guztiongandik gertuago, guztiokin, guztion artean eta guztiontzat”** diote antolatzaileek. “Inoiz baino gertuago” lelopean eta ekitaldia garatzeko ezinbestekoak diren eragile horien parte-hartzearekin, BIME PROk bideo bat egin du gertutasuneko espiritu horri atxikitzeko, berriro ere bat egin eta elkarri eskutik helduta aurrera egiteko deialdia eginez.

Hain zuzen, espiritu horrek berak bultzatu du BIME PRO **“A Conversation With...”** zikloa antolatzera; apirilaren 29an hasi zen zikloa, eta **sare sozialen bitartez** eta erabat **doan** dago eskuragarri. Musikaren industrian biziki garrantzitsuak diren pertsonaiekin izandako solasaldiak dira, gertuko formatu batean, formatu hezigarri batean. Orain arte, 16 elkarrizketa egin dituzte hainbat esparrutako adituekin; esate

baterako, Patricia Gabeiras-ek jaialdien etorkizunari buruzko gakoak azaldu zituen; Ramiro McTerseek eta Eva F. Cortés-ek kultura-komunikazioaren arloko bi ikaskuntza-saio eskaini zituzten; XXI. mendeko kulturen erreferenteak diren diziplina anitzeko bi artista: Brisa Fenoy eta Lyona; Juan Tomás Tello-k music supervisor figuraren lan garrantzitsuen berri eman zigun; eta Alex Rayón-ekin musikaren digitalizazioaren munduan sakondu genuen. Zikloak harrera oso ona izan du, 6.000 ikusle baino gehiago izan baititu, eta Latinoamerikako errealitateari buruzko edizio berezi bat izan du, dagozkien eremuetan erreferenteak diren 7 pertsonari elkarrizketak eginez. Baina "A Conversation With..." zikloa ez da izan BIME PROk ekitaldia digitalizatzearan alde egin duen apustu bakarra. 2020. urte honetarako, antolatzaileek feria izan aurreko hilabeteetan parte-hartzaileen arteko interkonexioa indartzeko helburua ezarri diote beren buruari. **Networking-eko APP**aren bitartez, bonua erositak duten profesionalak harremanak egiteko aukera izango dute, plataforman alta hartzeko erabili dituzten profilekin. Halaber, hurrengo asteetan, trantsizio digital honi buruzko berrikuntza gehiago argituko dira.

Sarrerak gaurtik aurrera eros daitezke www.bime.net webgunean.

Prensa Kit-a eskuratzeko, [hemen](#).

#inoizbainogertuago bideoaren esteka, [hemen](#).

BIME PRO

2020ko urriaren 28tik 30era, BEC! Bilbao

#inoizbainogertuago | #bimepro

3 eguneko bonua: 85 € + gastuak